

14. Bittor Kapanaga: *Erro eta gara*



Bittor Kapanagak Otxandion jaiotakoa da orain dela 79 urte. *Euskera erro eta gara* liburua orain dela 27 argitaratu zuen. Bitorrek hizkuntzaz gain, euskal mitologia eta beste zenbait gai landu ditu Euzko Gogoan, Zeruko Argian eta Egunkarian argitaratutako artikuluetan.

Etimologian egin duen ekarpen nagusia lehenengo liburu horretan dago. 210 orrialde dituen liburu horretan, teoria guztiz interesgarria plazaratu zuen: euskarak hiru egitura desberdin ditu bere barnean.

Bittor, lanbidez, metalurgian ibili da, burdinarekin lan eginez, Eibarren lehenengo eta Otxandioko lantegi batean ondoren. Baina, bizitza osoan euskararekiko kezka izan du eta ordu askotako gogoeta eta mendebaldeko euskara barru barrutik ondo ezagutzea izan dira bere teoriaren ongarriak.

Ondoren, liburu honen puntu nagusiak laburtzen saiatu gara. Beraz, agertzen diren testu guztiak zuzenean liburutik hartuta daude. Etzanez, guk jarritako paragrafoak jarri dira.

Laburpen honetako hitz zerrendetan ezin izan dira jarri Bitorrek jarritako adibide guztiak. Denak ikusteko, liburura jo behar da.



1. Sarrera

Euskera euskeratik azertu

Bitorrek sarreran adierazten digu ez dugula euskara euskaratik azertu, erdaratik baino: "Gure jakintsu gehienak erdera gehiegi dakitela, erderen estrukturaz (edo antiestruturaz) kutsaturik direla eta hain zuzen, horrexegatik ezin dutela euskeraren arazoa argitu edo erabaki. Gehienek, ez dute euskeratik begiratu euskera aztertzen, erderatik begiratu baino".

Bitorrek etimologian oinarrituta honako hitzak hobesten ditu: euskera, erdera, dire, alkar, hoiek, eretzi, etab. Horregatik horrela agertuko dira idatzita aurrerantzean.

Bestetik, "mendebaldeko euskalkian ditugula euskararen misterioa argierazteko behar ditugun argi iturriak" ere esaten digu liburuan, bera barik bere teoria ezin izango zuela garatu esateraino.

Fonema bakoitzaren jokalekua

Euskeran fonema bakoitzaren zer gertatzen den azaltzen digu Bitorrek:

a = e	Fonema bi hauek, erraz nahasten dire eta bata bestearen ordezt erabiltzen ditugu maiz.
u = i	Bi hauekin ere, aurreko biekin bezala gertatzen da.
o = u	Hauen artean ere berdin jazoten da.
r = d	Ahoslagun hauen artean, r maiz d bihurtzeko jokaera nabari dugu. Hitzaren hasieran dugunean izan ezik, r=d aldatze hori ageri da gehienetan.
r = z	Bi ahoslagun hauen artean, alkar-besteratzea gertatzen da sarritan, aditzen izenetan batez ere. Bai eta, r=s gertatzen da inoiz.
m=b=p	Hauen artean ere, alkar-besteratzea maiz ageri da.
b=m=n	Aurrekoen arteko kasua, inoiz n ahotsarekin ere lotzen da.
g=k	Ahots hauen alkarkitasuna, hasiera beretik ageriko zaigu eta gure oharmenean izan beharko dugu beti.
d=t	Ahots bi hauekin ere berdin jazoten da, baina aurrekoek baino eragin gutxiago dute hesparru honetan.
z, s, x, tz, ts, tx	Ahots guzti hauek, funtsean jatorri. batekotzat jden ditugu.
dx=j	Nahaste handia dugu; j hizkia genuke egokiena baina euskaldungoaren erdiak baino gehiago gaztelaniazko j ahoskerara ohiturik dago. Beraz y erabiliko dugu.

Euskera hasieratik: "a"

Ezinbestezkoa dugu, ahoski hau (a) lehenen aipatu beharra. Hasieratik du hizkeraren muinetan zeregin berezia eta beste ahoski guztien gain, bere eragina agertzen du. Bidezko dala uste dut, zera pentsatzea; ahots haxe izan daitekeela gizonaren aurretiko gizaberearen ahoski bakarra.

Beraz, gizakia, eboluzio bidez taituzten joan bada, eta noiz bait hitz egiten hasi baldin



bazan, etzan izango bat batean, ez eta "norbaitek" irakatsi ziolako. Astiro eta eperik epera, gutxitik gehiagora joan beharko zuan, bai gauzak ezagutzen, bai eta, sentipenak sentitzen eta eretxi eta usteak erasortu eta ugaritzen. Eta erabatez, hitz berriak sortzen.

Fonema honek garapen hau izan zuen:

A -> aua = ava = aba -> ama
A -> adda = atta -> atte / atta / aita

Sendiak garrantzi izugarri du gizakiongan eta, eremu semantiko honen inguruko berbak, seguruenik, zaharrenetatik zaharrenak izango dira. Bittorrek, "aba" erroarekin lotu ditu gehienak: asaba, osaba, izeba, iloba, alaba, arreba, neba.

asaba	= asi-aba	antepasado. as fonema hasiera ustea: as-i
ozaba	= oz-aba	tío
izaba	= iz-aba	tía. iz fonema, izeko eta aizpan bezala
izeba	= iz-eba	tía
iloba	= il-oba	nieto-sobrino. il ahoskia du
alaba	= al-aba	Hija. al ahoskia ar -en aldakia izan daiteke
arreba	= ar-eba	hermana de varón. ar ahoskia du
neba	= n-eba	hermano de hembra. Agian: eme-aba>emeba ->meba>neba
ugazaba	= ugatz-aba	Patrón

Gaur egun ugazaba hitzak duen esanahia (norberen gain dagoen norbait) garrantzitsua dugu. Dirudenez, sendi eta leiñu giroan, emearen giderrak arraren eskuetara igan zirenean, (matriarcado - patriarcado) izen hori, hortxe gelditu zan, lekuko bikain bezala. Eta gizaki arteko lotura mota berri bati ezarria izan bide zan. Bai eta, lehen zuan aidetasuna (ugatzezkoa) adierazteko, forma berria sortu bide zan: ugazama. Bidezko da, aba ama bihurtu zanean, ugazaba ugazama bihurtzea.

Hirukoitz iturburua: euskeraren hiru substratuak

Euskeraren erraietan ageri zaizkigun fonema bereziak, guztiak batera eta baktxa bere esanahi behinenarekin hartzen baditugu, auzia erabakiezina egiten zaigu. Nahasketa ikaragarri baten amaraunetan trabaturik bezala aurkituko ginatke. Baina fonema hoietak baktxa hartu eta bere inguru guztiaren argitan aztertuz, arazoak beste tankera bat hartzen du. Eta horixe da, neronek hasieratik egin nuena. Berehala ohartu nintzan, fonema batzuen zeregina euskarari, harrigarria zela; eta ez esanahi asko zituelako bakarrik, esanahi arlo hori orokor egitera ere heltzen zelako baino. Hori bai, esanahiaren orokortasun horrek bazuen muga bat: zentzuarena; izatasunaren, egintzaren edo eta ukatzearen zentzuak mugatzen zituen fonema garrantzitsu hoiari arloak.

Esanahi orokor horren adierazpen bakarra, hauxe iruditzen zaigu: hastapeneko ahoskiak izatea. Gizakia lehenez fonema bereizi batzuk ahoskatzeko gai egin zeneko aztarnak izatea. Eta fonema soil multzo horren gain eraikitako atondura ikusirik, ustekizun hau errotua eta gotorra egiten dela uste dugu.

Ahoski behinenak beren inguru eta guzti aztertu ondoren beste arazo bat sortzen zaigu: fonema bat baino gehiago dugula arlo berean eta zeregin berdina betetzen. Eta korapilo honen askabidea, eretxi honetan aurkitu nuen: fonema hoiak, gizamultzo ezberdinetan sortutako lehen ahoskiak izan behar zutela."



Multzoak	Izatasuna	Egintza	Getasuna
Lehena	IZ	IN	IL
Bigarrena	AR UR	UK	U
Hirugarrena	GO	GI	GE

Hasierako oinarrietan ageri zaizkigun fonema hauen gain atondurik ikusten dugu euskera; bai fonema beroien arteko sarekatzeaz, bai ahoskilagunen bidez forma berriak sortzeaz eta bai beste fonema bereizi batzuk gehitzeaz, hizkera gotor bat izatera heldu zaigu.

Atonkera horren bideak eta zelakotasunak jarraituko ditugu lan honetan. Eta lehen, **a** ahoskiaren eraginez sortu izen bide diren ezenbait forma:

IZ iz + a = ITZA iz - a = xa = YA	IN	IL -a+il= AIL = AL
AR - ar+a = ARA UR - ur+a = URA	UK	u - il = UL U u - in = UN
GO - go + a = GA GO = KO e-go = EGO = EGU	GI	GE = KE ge+a= GA = KA

Gauza hoietako bat, **e** fonemaren aurritsasteko arauaren antzintasuna. **Ego, egu** formaz aparte, hona zenbait adigarri:

e-in = ein (egin)
e-uki = euki (eduki eta beste formak geroagokoak dirudite)
uk-a-n = ukan (hau, aditz bi hauen kideasuna adierazteko ezarten dugu)
e-iz = eiz (eitz)

e ahoski honen eragina, bai aurrizki (aurreahoski) bezela eta bai tarteizki edo betegarril bezela, oso handia dugu. Gainera, baduelarik berea duen esanahi konkreturen bat ere, euskeraren azterlanetarako lauzogilerik handienetakoa dugu.

Bai eta, hasiera honetatik gogoan izan behar dugu, hastapeneko fonema hoiere eremua gero eta zabalagoa izatera doala.

Eta hoietako bakotxak, forma asko hartzen dituala. Batez ere, ahoskatze erari gagozkiolarik. Hona hemen, zenbait adibide:



IZ = iz, itz, is, its, ix, itx.
IL = il, ail eta al.
AR = ar, ara, arr eta arra.
UR = ur, ura, urr eta urra.
U = u, ul eta un.
GO = go, ko, ga, ego eta egu.
GE = ge, ke, ga, ka.

Bederatzi erro hauekin, euskararen hitz gehienak sortu direla adierazten eta azaltzen du urratsez urrats Bitorrek, oinarrizko arau hauen arabera:

- 1.- Izatasun zentzudun fonemak, esanahi orokorki bat dute beren zentzu hesparruan: IZ = sua, argia, ura, izatasuna, askotasuna, aitzia, aizea, gorputza, gogoa, hitza, zuhaitza, denpora, bizia, gizona, piztia, e.a.
- 2.- Izatasun zentzudun fonemak alkartuz, zentzu bereko diren hitz berriak sortzen dira: **go-iz, iz-ar, ar-itz, ur-itz, ga-ur, itz-ar, go-ar**.
- 3.- Izatasun eta getasun zentzuzkoak alkartuz, ondorengoak getasun zentzua izaten dute: **is-il, itz-al, its -u, itz-ul itz-un, iz-un, is-un, ge-iz, ga-itz, ya-u(xau), ur-un**, e.a.
- 4.- Izatasun eta egintza zentzudun fonemak alkartuz, egintza esanahidunak sortzen direla: **iz-a-n, ya-n, ga-in, ur-i, ya-gi, ar-i, go-r-i**. e.a.
- 5.- Egintza eta getasun zentzudunekin, getasun zentzudunak sortzen direla: **in-ul**.
- 6.- Getasun eta egintza zentzudunekin, egintza zentzua dutenak batez ere: **ge + in = gen, ken; un-gi** (itzungi).
- 7.- Getasun zentzudun fonema bi alkartzean, zentzu berekoak sortzen zaizkigu: **il-un, ga-u, ge-al** (gal) (gel).
- 8.- Egintza zentzuzkoak alkartuz, zentzu berekoak: **uk-a-n, e-uk-i, gi-n**.

Egintza arloko fonemeei buruz, ukazina dugu, beren arteko loturak eta alkarrekiko eraginak, hasieratikoak diruditela eta nahasketa antzeko zerbait badugula. **Gi** eta **in** fonemak bereiztea, zenbait hitz zaharretan izan ezik, oso gaitza dugu. Gainera **gi** ahoskiak beste esanahi bat hartzeraz jo duela dirudi.

Arlo horretan, **in** fonema dugu indartsuena eta garaile. **Uk** fonemak badu hesparru berezia. Eta **gi, in** ahoskiak ia estalirik utzi du.

Beste gauza bat ere aipatu beharrekoa dugu: izatasun eta getasun zentzuekin ari garenean, badugula beste nahasgile dugun ahoski bat: **ga. a** fonemaren orokortasunak sorturikoa izanik, berdín zaigu izatasunezkoa nahiz getasunezkoa. Beraz **ga-u** hitzari buruz, ezin daikegu esan ziurki, **ga** zatia buruz, getasunezkoa ala izatasunezkoa dugun. Hala ere, funtsean, ondorengo berdina izan behar; argi zentzua ukatzen duana edo bi aldiz ukakorra



Lehenengo multzoko izatasun erroa: IZ

Ahoski hau buru duen multzoa, guztietan bereziena eta indartsuena dugu, ezpairik bage. Beste multzo biek, badirudite beren artean nahastu zirela, **iz** multzoarekin alkartu baino askoz lehenago. Eta beste hau, haietiko multzo berri bati alkartu zela geroago.

Suaren arloan

izio	= encender (iziotu)
izigi	= encender (isiki). Atondura: izi-gi , iza egin
ixitu	= encender (ixetu). Atondura: ixi-tu
izeregi	= encender
izeki	= arder (ixiki, ixeki). Atondura: iz-e-ki , iz ekin?
ixatu	= quemar. Atondura: ixa-tu , iz bihurtu
isioki	= combustible, inflamable
itxindi	= tizón
izarki	= rescoldo, fuego cubierto de ceniza
istasun	= resplandor
itxustarri	= piedra del fogón
itzali	= apagar. Atondura: iz-al-i , iz gendu
izitu	= aterrar, espantar
izutu	= espantar
su	= fuego
ixu	= (ilddu) madera especial para conservar el fuego
ixuegun	= día del fuego. Rito que se extingue
txinpart	= chispa
txingar	= brasa
atzamau	= apagar

Guzti honetatik atera daikegun ondorena, zera da: **su** hitzaren forma zaharra **izu** izan bide zela. **Izu** forma hori, aurreragoko **izio** edo **izi** forma baten ahots aldaki bat izan daiteke; forma guzti hauek ageri bait dire, ikusi dugun hitz txorta honetan. Ukatu ezin daitekeena, zera da, **iz** fonemaren gain sortu dala izen multzo hori, su hitza ere barruko dalarik.

Iz = izio = izioa = izua izan daiteke Izu (ixua) formaren sorbiderik segurkiena. Eta **Izu = xu =su**, izan daiteke ahoski garatzerik bidezkoena da.

Argiaren arloan

Argiaren ustea, suaren ustetik ez da beti erraz bereizten Argia, izan ere, suaren ondoren bat baino ez dugu.

istasun	= resplandor. Atondura: iz-tasun (iz izatasuna)
isla	= perfil del horizonte, silueta, reflejo
izla	= reflejo del sol
izpi	= rayo luminoso
ixiki	= rayo de luz
iztasun	= brillo
izki	= indicio
itzal	= sombra. Atondura: itz-al (getasuna)
itzali	= apagar
iziotu	= encender



itsu	= ciego. Atondura: its-u (getasuna)
its	= sucio
izkutu	= oculto. Atondura: iz-k-u -tu (argitatik kendu; aditza izana)
geiz	= sombra (keiz, geriz, keriz). Atondura: ge-iz (getasuna)
izar	= estrella
istantza	= amanecer. Atondura: is-t-antz (argi antza)
iz	= luz (P.Bera – L. Mendizabal hiztegian)
izki	= luz (P.Bera – L. Mendizabal hiztegian)

Uraren arloan

izotz	= escarcha (izotza)
istil	= charco, pozo (izhilla)
iztoki	= cenagal (izlekua)
isol	= aguacero (uri-ol bezela)
iztin	= gota
itz	= rocío (ihintz, ihitz, intz, iliontz)
itsaso	= mar. Atondura: its-as (as, "asko" "aski" eta holako hitzetan ere ageri da)
iturri	= fuente. Atondura: it-urr- i (hemen, iz, it forman ageri zaigu. Ahos kera aldatze hau, maiz ageri da)
isuri	= derramar (líquido)
izurde	= cerdo marino (delfin)
izerdi	= sudor
ixaka	= acequia
ixukatu	= enjugar
ixurki	= vertiente de agua
ixurkin	= agua sucia
ixkernu	= agua corrompida
itukin	= gotera
izpura	= agua corriente. Atondura: iz-pur-a (hemen, ur fonemak "pur" forma hartzen du)
ito	= ahogarse
idoi	= charco. Atondura: iz-doi
izokin	= salmón
istu	= saliva
eze	= húmedo
ezatu	= regar
ezadura	= humedad
ezade	= jugo, savia
txiz	= orina. Atondura: tx-iz (beharbada, iz-iz izan daiteke aurretiko forma, "gorputzaren ura". Hasierako i galtze hori, maiz agertuko zaigu.
istun	= acueducto
itaizur	= gotera

Izatasun arloan

Izatasun ustea adierazteko, **iz** fonema hau, bete-betean darabil euskerak. Bai aditzsoila, (infinitivo) egiteko (izan) eta bai aditz laguntzailea eta bere jokia moldatzeko. Bi hauetan, ez ditugu bata bestearen ondoren, biak **iz** ahoskitik eta bide ezberdinez sortuak baizik:



Izatasuna Egintza
iz in iz + a + in = izan, izin

Eta hastapenaren hasieran, ez zan izango gaur ohi dugun bazela, pertsonen bereizkatarik; hizketan, pertsonen kokatzeari buruz egin ohi dugun bereizketa esan nahi dut (ni, hi, ha; gu, zu, halek).

Nik uste dut "pertsonak", bi bakarrik zirela: **ni** eta **hi**, askotasunaren eraginez **gu** eta **zu** bihurtzen direnak. Bestea, hirugarrentzat jotzen duguna, (eta lehenena izanki). orokorra dugu, izaki eta gizaki guztientzat berdin balio duena.

Berezko ahoskia Izatasuna zentsua Izatasunaren adierazle orokorra
a iz aiz

aiz hitz hori, millaka urte askotan izan zitekean. Geroago, gizakia, bereizketak egin beharretan aurkituko zan: hizketa lagunekin bereizi beharra alde batetik; eta bakar-tasunaren eta askotasunaren bereizi beharra beste aldetik. Eta fonemak zerbait aldaeraziz eta gehituz jokatu beharko zuen. Honela gertatu zitekeala iruditzen zait:

a = aiz = aiz = daiz (daz, da)
i = iaiz = aiz = aiz (az, a)
ni = niaiz = naiz = naiz (naz, na)

Bigarren pertsonako formak **i** galtzean hartzen zuen forma **a** lehenengo orokorra berdin jartzean, atzen hau aldatu beharra sortuko zan. Eta **de** ahoskia ageri zaigu aldaketa horren eragile. Ahoski honetaz esan daikegun bakarra, hauxe da: urruntasun ustea adierazten duela dirudigula. Deitu aditzean, ustekizun hori nabari dala uste dut: **de-in** (urrunera egin); eta erdera hitzean: (erri-de-era)

Askotasuna berezi behar izan zenean, horrela jokatu zuen euskarak:

a = a-e-k = daiz-e = dare, dire
i = zu = zaiz-e = zare, zire
ni = gu = gaiz-e = gare, gire

Nahasketa, gero ageri da, bigarren pertsonako plurala bigarren bakarraren ordezt erabiltzen hasten danean sortua. Begira zela gertatu izan bide dan:

ni naiz	gu gare / gara-a	ger-ra	gir-a
i aiz	zu zare		
zu zara (a)	zu-ek zare-e / zarie (zare)	zerate	zirade
zu zera (a) (gipuzkeraz)			
a daiz	aeke dire / dir-a	dir-a	dir-a

- 1.- Noizbait, gizarteko txurikeriaren eraginez eta nagusiagoekiko tratukera itzalagotzeko, bigarren plural forma, bigarren bakarraren ordezt erabiltzen hasi zan.
- 2.- **Zu** hori **i** ordezt erabiltzean, **zare** forma **aiz** formaren lekuan erabili behar. Eta horretarako, **e** askotasun ustea edo esanahia kentzeko, **a** ahoskia ezartzen zaio: zar-a.
- 3.- **zare = zara** aldaketak eta dirudienez berdinarauz, **gare = gara, gera, gira** eta **dire = dira** formak erasortzen ditu.



4.- Baina hizkuntzak beren berezko izatera jo ohi dute, gizakiak eta beste izakiak bezala dirudienez. Eta plural ustea berriz ezarri eta indartu beharrez, nahasketa handiagoa sortzen da. **a = aek** aruari jarraiz, **zu = zu-ek** sortzen da.

5.- Bide beretik, plural zentzua indartu beharrez, nahaste hauek sortzen dire: **zare-e** (mendebaldean) **zarie** eta, **zarei** bihurtzen dalarik; zera-t-e, gera-d-e, dira-d-e, gira-d-e, zira-d-e, zare-t-e, e.a.

Horregatik, Kapanagak hauxe proposatzen du:

Bakarra (singular)	Askotza (plural)
ni naiz	gu gare (gire)
hi haiz	zuek zare (zire)
zu zara (zira)	
ha da(iz)	haiek dire

Iz eta askotasuna

Askotasun ustea adierazteko, euskerak, **e** fonemaz aparte, besterik ere erabiltzen du:

z (dator/datorz; dot/dod-a-z; doa/doaz; dijoa/dijoaz; dago/dago-z
it (dut/d-it-ut; zuen/z-it-uen; dugu/d-it-ugu;
izk (diot/d-d-izk-iot; zidan/z-izk-idan; zenigun/zen-izk-igun

Ez da behar begi zorrotza ez eta irudimen aberatsa ere, hiru askotzaille hauek bat bera baino ez direla ikusteko. Hemen gertatzen dan okerkizun bakarra, hauxe dugu: noizbait askotasun ustea aditzari itsasteko araua hautsia izan zan eta horretatik sortu dire forma ezberdinak. Araurik zaharrenekoa, lehenengo forma dugu, plural zentzua aditzaren atzanean itsastekoa. Hau, euskalki guztietan ageri, da eta mendebaldekoan du bere aginte osoa.

Gizona, bizia eta gorputza

Orain arte aztertu ditugun arloetan **iz** ahoskiaren zeregina harrigarri izan bazaigu arean, areago zaigu oraingo honetan; hemen erakusten dizkigun berezitasun batzuk, hauxe adierazten bait digute: lehen hizkeren garatze edo eboluzio bide bat, hasierako fonemen formak ugaritzeko bidea izan zala; eta horretarako aurreahoski gehitzeaz erasoturiko forma berriak zeregin handi bat dutela. Hiru forma bereizi bide direlarik: **iz**, **biz** eta **giz**.

iz		giz	
izatz	= rabo (iz-atze)	gizon	= hombre (gixon)
izapo	= rabo	gixar	= músculo, magro (gihar)
itzebagi	= hendidura de la piel: itz-ebagi	gizen	= grasa, gordo (gixen)
iperdi	= nalga (iz- be- erdi)	gibel	= hígado (giz-bel)
iztarri	= garganta	giltzurri	= riñón (giz-urdi)
istu	= saliva	guntzurrun	= riñon
izara	= sábana (iz- zarea: gorputzerako ohiala)		



izerdi	= sudor (iz-erdi)	biz	
izter	= muslo	bizi	= vivir = vida
iztal	= calcáneo	bizitza	= vivir = vida
iztai	= ingle. Iztegi ere bai.	bixots	= corazón (biz-hots)
izpalda	= espalda	bieztun	= hiel (biz-dun)
izor	= preñez (preñada)	bizker	= costado, costillar
zill	= ombligo (iz-il)	biri(ki)	= pulmón
sama	= cuello	bizkor	= vigoroso, ágil
sabel	= matriz (iz-a-bel)	biztu	= avivar, tomar vida (biz-tu)
soin	= cuerpo (is-o-n)	bixutura	= turbulento
sonburu	= hombro	bizar	= barba (biz-ar)
sorbalda	= espalda		
txiz	= orina (itx-iz : gorputzetiko ura)		
heste	= intestino		
estul	= tos		

Hutsune ulergaitz bat dugu: buruari dagokion ezertxo ere ez dugula. Badirudi gorputz ustean ez zutela sartzen buruaren ustea. Hau, burua, zerbait bereizi izan behar zuen eta badirudi gorputza saman amaitzen zala.

Iz eta gogoa

Iz ahoskiaren aldaki bat **ya** ahoskia da eta gogo zentzuarekin zerikusia du:

yan	= comer. Atondura: ya-in
yagi	= levantarse. Atondura: ya-gi
yatzi	= bajarse. Atondura: ya-etz-i
yagon	= velar, cuidar. Atondura: ya-egon
yamon	= atender, hacer caso . Atondura: ya-emon
yakin	= saber
yasán	= sufrir, soportar
yadetsi	= alcanzar, conseguir
yaio	= nacer
yali	= salir
yalgi	= caerse la fruta madura
yantza(tu)	= bailar
yantzi	= vestirse
yarri	= ponerse
yarrai	= seguir
yai	= libre, fiesta, asueto (yarain=liberar)
yabe	= dueño (ya-b-e-n) edo (ya-be)
yainko	= Dios
Yaurti	= lanzar. Atondura: ya-urt-in (urtean lez: urt-in)

Iz eta ondorenkiak (sortza)

N euskeran, hastapeneko ahoskia dugu. Zeregin asko du euskeraren hesparuan eta horrek nahasketa asko sortzen ditu: **ama-n, ama-a-n (amagan)....**

Beraz, arlo honetan bi ustekizun ditugu: bata, ondorentza ustea dugu (descendencia) eta bestean zentza (sentido, pensamiento)



izen	= nombre. Atondura: iz-e-n
sen	= juicio, sentido, naturaleza, carñacter, instinto, sensibilidad
seme	= hijo
zentza	= sensatez
zentzu	= juicio, entendimiento, sentido (zentzun)
zentzatu	= corregir, volver a la sensatez
senar	= marido. Atondura: sen-ar
senbage	= fatuo. Atondura: sen-bage
senge	= estéril (sin descendencia). Atondura: sen-ge
senide	= hermano, pariente. Atondura: sen-ide , condescendiente
sentsu	= juicioso, sabio. Atondura: sen-tsu
sein	= niño, criatura recién nacida
sendi	= doliente, sufriente. Atondura: sen-ti

Iz erroaren “i” galdetzeak itxualdatxe handia eragiten die hitzei. Baina halaxe gertatzen da: **i-zen->sen->señ->sein** edo **iz-u -> su**

Iz eta denbora ustea

Arlo honetan ere ageri zaigu **iz** ahoskia, nahiz eta ez besteetan bezain indartsu :

iñoiz	= por siempre, jamás (ez betean baina hurbilenik)
itxain	= esperar (itxoin, itxaron, e.a.). Atondura: itx-a-in
ixtant	= instante
estu	= apurado. Atondura: iz-t-u
goiz	= temprano (hastapen gorria). Atondura: go-iz
garaiz	= a tiempo

Iz beste arlo batzuetan

Landareak

zugaitz	= árbol (zuhaitz, zuraitz). Atondura: zur-eitz : zura duten arbola mota. Zur hau izan daiteke: iz-ur
zur	= madera (zul). Atondura: ar-eitz (bi aldiz arbola)
areitz	= roble (aritz).
urreitz	= avellano (urritz). Atondura: ur-eitz
leizar	= fresno (lizar, lixar, leixar). Atondura: (l)leiz-ar
zaratz	= sauce (sahats). Atondura :zare-eitz (sareak, sarak, otzarak)
arantz	= endrino. Atondura: aran-eitz
maats	= vid (mahats). Atondura: ma-eitz
...tz	= landara askoren hitz amaiera

Eiza

eiza	= caza. Atondura: e-iz-a
izkillo	= arma. Atondura: iz-gailu
piztia	= alimaña. Atondura: piz-ti (piz – biz –giz: iz fonemaren garapenak)
aiztore	= ave de rapaña, buitre
aizeri	= zorro
azkoin	= tejón

Aitza

aitz	= roca, piedra. Atondura: a-itz
aizkora	= hacha. Atondura: a-iz-k-o r-a . “or” “ar” fonemaren aldakia
aiztur	= tijera. Atondura: a-iz-t-ur



aizto	= cuchillo
aitzur	= azada. Atondura: a-iz-t-ur
azkon	= dardo
azpil	= plato. Atondura: a-iz-bil

Hitz hauek harriaroaren lekukoak dira baina ez dira zaharrenak ezta balioetsuenak ere batzuek diñoen moduan.

Aizea

aize	= viento, aire
aire	= viento, aire. Atondura: a-ir-e (z=r askotan gertatzen da)

Itza

itz	= palabra
izkera	= lenguaje. Atondura: iz-k-era . Hitz egiteko era
izkuntza	= lenguaje. Atondura: iz-kun-tza
isil	= silencio. Atondura: iz-il
esan	= decir. Atondura: isan -> esan. Disot->dixot->diyot->diñot
itzartu	= despertar. Atondura: itz-ar-i-tu

Gorputz eder bati buru egoki bat ezartzea bezalaxe da "iz" fonema itzaren ustea adierazteko erabili izana.

Lehenengo multzoko egintza erroa: IN

Egintza (intza) edo ariketa ustearen arloan, eta zelako zalantzarik bage, **in** ahoskia dugu nagusi. Aldakuntza hau izan da, eta ez alderantziz, jende askok uste duen moduan: **in-> e-in -> egin**. **In** aditzaren mui, erroa eta ama da: **itxa-in, yara-in, ga-in, za-in...**

Gaur egun aditz zentzua galdua edo erdizkatua duten hitz asko aditzak izanak ditugu eta **in** ahoskia izaten duten aditztasunaren salatari: xotin (**xot-in**), garbi (**gar-bi-i**) zikin, geldi, lodi, txarri...

In ahoskitik **-din** eta **-ti** sortuak ditugula uste dut:

-din: "inera" edo egikeraren zentzua du: berdin (**ber-din**), urdin (**ur-din**), garden (**gar-din**) gordin (**gor-din**)
-ti: izakera egin egintza ustea adierazten digu: **negar-ti, berdur-ti, izu-ti**

Lehenengo multzoko getasun erroa: IL

il ahoskiak getasun zentzurik gogorrena du: eriotza, iliuntasuna, isiltasuna...:

il	= morir
ilun	= oscuridad. Gauaren sinonimoa hasieran. Atondura: il-un(e)
isil	= silencio. Atondura: itz-il : hondoko hondarra, hasierako ustekizuna
argal	= delgado, flaco. Atondura: aragi-al
makal	= débil. Atondura: ma-k-al
gal	= pérdida. Atondura: ge-al izan daiteke
itzal	= sombra. Atondura: iz-al
itzal(i)	= apagar (fuego o luz)
ortziral	= viernes
ilargi	= luna



Bigarren multzoko izatasun erroa: AR-UR

Euskararen misteriorik handiena eta argitzeko gaitzena, hauxe dugu: oinarritzko ditugun ahoski bakotzak, berez eta bakarrik, zentzu arlo bakotxa (izatasuna, inketa -egintza- edo getasuna) osoan eta guztiz adierazten zigula. Eta bestetik, zentzu arlo horietako bakotxean hiru ahoski ageri genituela, zeregin berdina betetzen eta bata bestearen leian.

Multzo honetan bikoiztasuna dago. **ar** ahoskiak arraren edo artasunaren zentzua du betebetean. Eta **ur** ahoskiak uruzarena (emearena).

Suaren arloan

ar ahoskiak **al** eta **az** (as, ax...) formak ere hartzen ditu. Eta berdin ur ahoskiak ere. Beste fonema batzuekin batzean, aldaki forma asko hartzen dute: ug- ud-, uz-, ad-, e.a.


ardagai	= yesca. Atondura: arda-gai (arda=sua)
ardai	= tea. Atondura: arga-i (aditza izana dirudi)
arba	= leña con hojas secas
arrapiztu	= encender, resucitar. Atondura: arra-piz-tu
arau	= pala de horno, hierro para asar borona
gar	= llama
galda	= fundición, metal candente

Argiaren arloan

ar ahoskiak **al** eta **az** (as, ax...) formak ere hartzen ditu. Eta berdin ur ahoskiak ere. Beste fonema batzuekin batzean, aldaki forma asko hartzen dute: ug- ud-, uz-, ad-, e.a.

argi	= luz. Atondura: ar-gi . Sinonimoak: eguzki (egu-z-ki), izki (itz-k i)
arrai	= brillante
aratz	= brillante, puro. Altatz eta aratz gauza bera: ar-a-tz . Argitasun handia
alatz	= milagro
arrats	= parte de la noche, del anochecer a medianoche. Atondura: ar-atze , argiaren atzetik datorrena
artizar	= estrella matinal
arge	= eclipse, oscuro

Gi ahoskia dagokion izakiaren izatetik zerbait, zati bat edo izakera bat adierazten digu: **oiloki** (oiloren), **urdeki** (urdearen), **emeki** (emearen bezela), **ederki** (edertasunez): **ar-gi** hitza ere **ar** delakoaren zerbait. Eta **izki**, **iz** delakoaren zerbait eta **egu-z-ki**, egu delakoarena. Gaurkoko kultura askok ez dute lortu euskerak lortu zuen egokitasunik:



arratsalde = arrastiri, arrastei
 goizalde = goiztiri
 iztantz = egunsenti, egunabar, eguantz
 iluntze = ilunabar, ilunkera

Erderak arrari ematen dio izena eta emearena horretatik atera: gallo -> gallina.
 Euskeraz ez. Antzar, seguruenik **antzo** izen omen zen eta hortik arra izendatzeko:
 antzar. Hitz kideak ditugu beraz: oilo -> gallo eta g-antzo -> ganso.

uztargi = arco iris. Atondura: **uz-t-argi**
 uztrauku = arco iris
 uztadar = arco iris. Atondura: **uz-t-adar**
 urte = año. Atondura: **ur-te** (periodo de sol)
 urten = salir. Atondura: **urt-in**: (argia egin)
 agur = adios. Atondura: **a-g-ur** (eguzkiaren izate ustea)

Uraren arloan

Ur aski genuen bera bakarrik ura zentzua duela adierazteko. Baina asko dago:

ur = agua
 elur = nieve. Atondura: **e-l-ur** (eltxo lez goitik jaisten den ura). **El-orri**
 landarrean ere eltxoak izaten dira udan
 uri = lluvia. Atondura: **ur-i** (aditza izandakoa: hacer agua). Urizka, uritel
 uritsu.
 uriol = riada, diluvio. Atondura: **ur-i-ol**
 ugarte = isla
 uhaiz = río. Atondura: **ur-a-iz**: izatatsun erro biak elkartuta)
 uhin = ola
 ukuzi = lavar
 iturri = fuente
 isuri = derramar líquido
 ubi = vado. Uretatik bidea esan nahi du. Atondura: **ur-bide -> ubide -> ubi**
 zubi = puente. Atondura: **zur-ubi -> zubi**. Zurezko bidea
 urdin = azul. Atondura: **ur-din** (ura bezalakoa)

Gizakia eta gogoaren arloan

Arlo honetan harrigarriko aberastasuna dugu:

ara = voluntad, intención. Atondura: **ar-a**: gogo: **gogo-a**
 ardua = preocupación, cuidado, diligencia. Atondura: **ar-du-ra**: ar erabiltzea
 arreta = atención. Atondura: **ar-eta**: ar delakoaz hariketa
 arro = orgulloso
 alai = alegre. Arrai bésala: **ar-a-i** (aditza izana)
 alke = vergüenza. Atondura: **ar-ge**
 arrail = gaudul, borracho
 arin = ligero
 arpel = vago, perezoso. = Alper. Atondura: **ar-bel-en** aldaketa: ar ilune.
 asper = hastío, aburrimiento. **Al-bel** itzetik eraldatua
 azkor = brioso, estusiasta. Atondura: **az-kor**, bizkor bezala.



aztu	= olvidar. Atondura: az-t-u getasunezkoa, its-u bezala.
argoi	= altivo, ufano. Atondura: ar-goi . Ur-goi -ren sinonimoa da.
arrausi	= bostezo, ansia. Atondura: ar-ausi (hautsi)
aserre	= ira, cólera, enfado. Atondura: as-erre
uzkur	= retraído, melancólico. Atondura: uz-k-ur (uz-k-or)

Gizakia hitzak ugaritzea behar izan duenean, ez ditu ahoski berriak asmatzen, lehenengoen gain forma berriak erasortu ditu.

Gizakia gogo zentzutik at:

Ar jatorri zentzuduna da. Euskerak hiru multzo ditu eta hirurak erabiltzen ditu: **ar** (dar, tar) **go** (ko) eta **sen**. Ikus dezagun **-dar** (d-ar) zelan erabiltzen den:

- Iedo **n** ahoskiz amaitzen diren hitzetan: ataun-d-ar, errexil-d-ar
- **A** bokalez amaitzen direnak: **ar** bakarrik: donostiar, markinar, azpeitiar
- Beste bokalez amaitzen direnak: **ar-** edo **-tar**: otxandioar, aramaioar, bilbotar, eibartar, zarauztar, ubidear

-ar	= oriundo
alkar	= mutuamente (uno a otro). Arkal. Atondura: ar-k-ar . Gizaki bat besteari buruz
arbaso	= antepasado. (g-ur-aso, b-ur-aso, as-aba). Atondura: ar-b-aso
arolde	= multitud. Atondura: ar-olde
aria	= raza
alme	= hijada. Atondura: al-me (gorputzak duen me -mehe- unea)
arcoil	= quien solo tiene un testículo. Atondura: ar-soil (ar-bakar). Barrabil: b-ar-a-bil . Biluzik (ez da billo hutsik, bil hutsik baizik).
urkatu	= ahorcar. Atondura: ur-ge-tu , bizia kentzea.
urrats	= paso (oinkada bat egitea)
urtuxi	= descalzar. Atondura: ur-t-uts-i . Ur=or garapena gertatu da: ustiko -> ostiko

Ar eta urruza

Arra eta emea adierazteko **ar** eta **urruza** (**ur-uts-a**) ziren hasierako berbak. Eme hitza beste garatze batekoa eta beranduagokoa dugu agian. Urruza izaki mota gutxiri buruz erabiltzen da: gizaki, behiki, behorki, ahuntzki eta ardiki. Lau abere hauek urruza hitzaren hesparruko dira eta laurak ar eta emeentzat izen bereziak dagoz.

Emakumearen esnea ugez (**ur-ez**, hau da, **ur-es**: esnea). Lau abere mota hauek dire gizakiak lehenen menderatu zituenak eta bere bizibiderako lagungarri aurkitu zituenak.


Euskal jainko izenetan, eta gutxi/asko estalirik, AR eta UR ere baditugu. Yaun, yabe, yainko, egu, urtzi (urritz formaren itzuliketa agian). Bi hauek bikote zentzu batekin erabiliak izan direla dirudi. Jainkoa ere bikote bezala zen: ar eta emea.

Denboraren arloan

Urte	= año. Atondura: ur-te (eguzkiaren bira baten aldia. Ur=eguzkia)
Aro	= época
Arte	= periodo. Atondura: ar-te
Aldi	= tiempo (de acción)
Asti	= tiempo (libre)



Dirudienez, antxineko euskal kulturaren urtea sei arotan zatikatua erabiltzen zen:



Aizaro, Uztaro eta Azaro gaur egun baditugu. *Iñautaro, Ezearo eta Olesaro Bitorrek interpretatutakoak dira:*

- Iñautaro (->iñauteri). Inausketa egin, urte osorako egurra batzeko garaia
- Aizaro. Eguen Santu gaua. (aize-aro, eize-aro)
- Ezearo (ere-aro). Ereiteko, izadia biziz borbor izaten da, landareak eze eta horriz bete.
- Uztaro: uzta-aro
- Azaro: olo, baba, baratxuri... eta bestelakoak ereiteko garaia: azi-aro
- Olesaro: olenz-aro. Erromeriarako edo festarako dei egiteari "Oles egin" esaten zaio, olesak, olezkari...

Euskal Herrian sei jaiaro ditugu, erro zaharretikoak diruditenak eta herrikoi kutsukoak, naiz eta batzuk kristau erlijioaren jaietz estalirik ditugun gaur egun: Iñauteri, Aste Santua, Ekaina, Uzta-jai, Gatainre eta Eguberri.

Baserri munduan urtea sei arotan zatikatzeko ohitura bizirik dirau: Udaberri (Urabarri, Bedats), Uda (ura, Udara), Udagoien (Udagoien, Udatzen, Udazken, Larrazken?), Negulen (Lrrazken?), Negu eta Neguondo (Neguazken).

Hiru aro negu aldetik, Eguberri ospakizun handia buru dutelarik eta beste hiru aro uda aldetik Ekain ospakunde jaiburu bezela dutelarik.

Izatasun arloan

arean	= en realidad (mendabaldean). Batuan zokoratutako hitza
areago	= más aún (gipuzkoaldean)
-ari	= cosa (hortuari, janari, edari...)
arau	= norma. Atondura: ar-a-o : jainko legea, giza legea, legea
aztar	= vestigio. Atondura: ar-t-ar

Neurri zentzu arloan

ugari	= abundante. Atondura: ur-ari (cosa de gruto)
urri	= escaso. Atondura: ur-il . Urritasuna eta ugarritasuna ur atzizkiaz.
asko	= mucho. Atondura: ar-ko (aski bezala: ar-ki)
arras	= totalmente.



Bitarte zentzu arloan

ur	= cerca
urrun	= lejos. ur-un (un=ukokorra, ur ez dagoena). Urrin fonetika aldaki bat.
urruti	= lejos. Urrundik hitzetik eratorria
urbil	= cerca. Atondura: ur-bil : urreko inguru

Landareak eta fruituak

araondo	= tocón. Atondura: ara-ondo , zuhaitzaren hondoa
areki	= árbol bravío. Atondura: ar-e-ki
arba	= rama. Ero berekoak: arbutz, arbasta, abar, adar (hau ar-ar atondurakoa izan daiteke).
ardatz	= eje. Atondura: ar-da-itz . Meta erdiko zuhaitza.
arabegi	= renuevo de árbol, nudo de árbol. Atondura: ara-begi
araki	= rama. Baita: arkil
areitz	= roble. Atondura: ar-eitz
zumar...	= olmo. Beste zuhaitzak: astigar, azkar, sagar... ar dute osagarri
galar	= árbol seco, rama seca. Atondura: gal-ar
araburu	= copa del árbol. Gaztelaniazko arbol euskararekin zerikusia ote du?

Fruitu zentzuan

ur	= avellana. Hasieran fruitu guztien izena
intxaur	= nuez. Atondura: india-ur .
ezkur	= bellota. Atondura: areitz-ur-> eiz-k-ur -> ez-k-ur
uzta	= cosecha. Atondura: ur-te hitzaren aldakia izan daiteke.
urno	= residuos de grano. Atondura: ur-ño (tipitzailea)
Urun	= harina. Atondura: ur-un: "fruto destruido" Hiztegieta: urun: bide irin. Mendebaldeko euskera beti zokoraturik uzten da.
urgaldu	= desgranar. Baita: urkuldu. Atondura: ur-galdu eta ur-k-ul-du (ul=gal)
ugari	= abundante. Atondura: ur-ari (cosa de fruto)
aran	= endrina, ciruela. Ur erroetako fruituak etxean gordetzeko (urra, intxaurra), ar erroetakoak edariak egiteko: aran, arakatz, araga
Ardao	= vino. Ardan, amo, ardau, ardu, ardu (poseedor del espíritu).

Zarata arloan

zarata	= ruido. Balizko atondura: (i)z-ara-ta (te).
zartara	= ruido de fractura. Zart onomatopeiatik. Atondura: zart-ara
burrundara	= ruido de violencia, estrépito. Atondura: buru-n-b-ara
tarratara	= ruido de descosido
arada	= ruido de pedrisco. Atondura: ar-ara

Beste zentzu batzuetan

arri	= piedra
arbel	= pizarra. Atondura: ar-bel
are	= arena. Atondura: ar-xee . Erdarazko "arena" hitza hor dugu eta ikerlana interes handikoa litzateke.
ondar	= arena, residuo. Atondura: ondo-ar , uraren ondoan geratutako area
aran	= valle, meseta, tierra. Atondura: ar-a-n : sortza ustea
lur	= tierra. Ur fonemaren aldakia



ibar	= valle, ribera. Atondura: ibai-ar (ar: lur edo eremua)
buztin	= arcilla. Buztin eta burdin hitz bera dugu. Din=berdin (ur-din , bere-din ...). Gizakiak buztina landu eta ondoren burdina?
burdin	= hierro. Atondura: b-ur-din . Bur, lur bezala, ur fonemaren aldakia.
urre	= oro. Ur fonemaren garapena
zilar	= plata. lz eta ar fonemaz atondua dirudi
uri	= ciudad, villa, población. Antzineko izenak: Oruña (Santander), Uruña (Iruñea), Izurun (Donostia). Aditza izana: uru-i (urutasuna eman)
erri	= población. Atondura: ertz-i (esi bezala). "población amurallada"

Bigarren multzoko egintza erroa: UK

Uk ahoskiak dirudien baino garrantzi handiagoa du euskal hizkeraren atonduran: eduki, ukan (biak gauza bera atonduraz eta esanahiaz)

ukan	= uk-a-n (in) a fonema hartzen duenez, in adizgiletik n baino ez du hartzen
euki	= e-uk-i (in)
-dun	= sufijo: que tiene. duen hitzatzik eratorrita
-du	= sufijo para formar verbo. -du=tu. in fonema aditz erroak taiutzen ditu (ikus-i, ibil-i, etor-i, ama-i ...). du ahoskiak mota guztietako izenak aditz egiten ditu: gizon-du, asto-tu, zuzen-du . Batzutan biak batera: ama-i-tu ,

Berezko ahoskia	Izatasun eta ukate zentzua	Hasierako ondorena
a	uk	auk

lz arloan bezalako garapena:

a = auk = auk = dauk = dau
i = iauk = jayk = yauk = hauk
ni = niau = nauk = nauk = nauk

Euskeran aritasun (activo) ustea adierazten duen **k** hori, fonema honen ondarra izan daiteke.

Funtsean eta erroetara joaz, bi eskalkitatan banatu daiteke euskera: gipuzkera eta beste guztia: pluralaren erabilera, j-y ahoskerak, hitzen itzuliketak, adizgileen erabilkerak...

Bigarren multzoko getasun erroa: U

U getasun zentzuduna du baina batzutan **ul** eta **un** formak ere hartzen ditu. Ez da erraza bereiztea **-dun** edo **-du** atzizkietatik.

Beste zentzu batzuetan

uka	= negando. Atondura: u-ka : u egiten
itsu	= ciego. Atondura: itz-u : argirik gabekoa
gau	= noche. Atondura: ga-u (ga: argia-eguna).
arru	= barranco profundo. Atondura: ar-u , argirik gabekoa
izun	= falso, postizo. Baita: ixun, itzun, itun
ilun	= oscuro. Atondura: il-un (ukakor fonema biak) edo il-une
uts	= vacío. Atondura: u-itz



Hirugarren multzoko izatasun erroa: GO

Hiru multzoetatik murriztuena, IZ oso indartsu eta AR/UR nabarmenaren ondoren. Gogoari eta jainko usteeri dagozkien arloetan indar handia du ordea.

Fonema honekin kontuz ibili beharra dago **go-a=ga** eta **ge-a=ga** suertatzen delako. Alegia izatasuna edo getasuna adieraz ditzake **ga** ahoskiak.

Gor eta **gar** indar eta edadura handia dituzte, batez ere **gar** formak. Atondura **go-ar** izan daiteke baina ez dago oso argi.

Go ahoskiari gehigarriak erraz jartzen zaizkio: **gor, gar, goz, goi, gon...**

Su arloan

gori	= candente. Atondura: gor-r-i , aditza izana dirudi, sua egin
gorri	= rojo. Gori hitzaren aldakia
hori	= amarillo. Hau ere gori hitzaren aldakia. Biak suaren koloreak. Eremu semantiko antzekoak: gorringo, beigorri...
egosi	= cocer. Atondura: e-go-s-i . s, r -ren aldakia seguruenik eta i aditza
goha	= calor sofocante. Atondura: go-a , hau da, sua.
goma	= reverberación del sol. Atondura: go-eman .
gorpera	= sensible al calor. Atondura: gor-bera .
agoe	= goa, masa de hierro fundido. Aztertzea antzekoak izatea
gar	= llama. Sua zuzenki adierazten duen hitza. Indar handikoa

Argi arloan

goiz	= mañana. atondura: go-iz
gau	= noche. atondura: ga-u . argirik eza.
ego	= sur. atondura: e-go (gero e-gu bihurtuko zen). Goaren aldea.
egu	= luz atmosférica, atmósfera. Argi zentzua du
eguzki	= sol. Atondura: egu-k-i . Atondura berekoak: ar-gi eta iz-ki . Antxinetan, jainko, argi eta eguzki ustea gauza bat beraren alderdiak ziren
negu	= invierno. Atondura: be-egu (eguzkia behean) -> be gu->megu->negu


EGU ahoskia

Multsorik ahulena dugu **go** ahoskitiko hau baina EGU izena dugu bere jainko zentzuaren bidez, usterik behinenak markaturik utzi dizkiguna.

eguberri	= navidad. egu-berri eguzkiaren neguburuko behemuga
ekain	= junio. Atondura: egu-gain ; eguzkiaren udaburuko goimuga. Euskaldunon ospakunde nagusietako bat
eguasten	= miércoles. Atondura: egu-aste-n . Gaur egungo larunbata bezala: jai aurreko eguna
eguen	= jueves. Atondura: egu-e-n ; jainkoaren eguna
egun	= día
egubakokox	= Atondura: egu-bako . Eguena osteko eguna. Ortzirale bezala: ortzi-r-al : ortzi bageko eguna
ekaitz	= tormenta. Atondura: egu-gaitz
euskera	Atondura: egu-hizkera : jainkoaren hizkera, hizkera ona



erdera Atondura: **erri-de-era**, kanpoko herriaren hizkera
gurka = reverencia
guthun = libro, escrito. Atondura: **egun-dun**. Liburuak jainko arazoei
buruzkoak izaten ziren antxinean



Kristau aurreko euskal asteak zazpi egun zituen, hiru astegunez eta beste hiru jainko ustearen ingurukoak. Garrantzitsuena ostirala (eguen, eguzkiarena, ortzegun bezala: ortzearen eguna). Zazpigarrena astebetea osatzen duena, ilargitearen lauren bat eginez.

Batuan	Astelehena	Astearte	Asteazken	Ostegun	Ostiral	Larunbat	Igande
EGU erroa	Astelen	Astearte	Asteatzen	Eguasten	Eguen	Egubakotx	Laurenbat
URTZI (ORTZI) errokoak	Astelen	Astearte	Asteazken	?	Ortzegun	Ortziral	Laurenbat
AR/UR errokoa	Astelen	Astearte	Asteazken	Urrenegun	Aranegun	Biaranegun	Laurenbat

Goi zentzu arloan

goi = arriba, alto, cielo. Aditza izana agian. Atondura: **go-i**
goibel = cielo oscuro. Atondura: **goi-bel**
igon = subir. Atondura: **i-go-in**. Antzera: **egosi->e-go-s-in; egon->e-go-i**
gora = a arriba. Atondura: **go-r-a**
gara = elevación, desarrollo. Atondura: **ga-r-a (go-r-a bezala)**
garai = alto. Atondura: **ga-r-a-in**
jaungoiko = Dios, señor de los cielos. Atondura: **yaon-goi-ko**, zeruetako jauna
jainko = Dios, señor de los cielos. Aurrekoaren laburpena edo **jaun-go**

Izatasuna eta ondorena

-go (-ko) = genitivo relativo: nongo, horko, etxe**ko**
= sufijo de futuro: izango, ikus**iko**, joango
= sufijo de esencia: etsaigo, ikas**go**, aide**go**
= sufijo derivativo esencia adjetivo: lodigo, zabal**go**
= sufijo derivativo esencia nombre: etzango, itzal**go**
= diminutivo: muti**ko**, oilaz**ko**
= cuantitativo: bako**txeko**, ehun**eko**
-zko(z-ko) = sufijo composición o constitución: harriz**ko**, zurez**ko**, luzrez**ko**
= sufijo de modo: oinez**ko**, zaldiz**ko**
= sufijo de esencia: egiz**ko**, berez**ko**, gezurrez**ko**
-ago = sufijo de relatividad: gehiago, beltz**ago**, zuri**ago**
egon = estar
egotzi = imputar. Atondura: **e-go-itzi**
-koi = propensión.



Gogo arloan

gogo	= espíritu. Atondura: go-go
gomuta	= recuerdo. Aztergaitza
goartu	= advertir, darse cuenta. Atondura: go-artu
gorroto	= odio. Atondura: gor-u-tu . Getasun eta aditz izana
gogaitu	= aburrirse, hastiarse. Atondura: go-ge-i-tu . Bi aldiz adiztua
gorantzi	= recuerdo, saludo. Atondura: go-r-a-in-tza . Agian gorain aditz bat
gozo	= dulce, placer, gusto. Atondura: go-zo . Antzekoak: gozage, gozaro, gozatsu, gaztelaniazko gozar.

Gorputz eta buru

Latin hizkeran **korpus** hitza izateak ikaragarritzko itzala egiten dio euskarazko gorputz hitzari. Zerrendako **gor** eta **gar** guztiak latinetik datozela ezinezkoa da.

gorpitz	= cuerpo. Atondura: gor-p-itz . Gorputz honen aldakia.
gorpu	= cadáver. Atondura: gor-p-u . Getasuna.
gorotz	= excremento. Atondura: gor-a-uts
gona	= vestido, falta. Antzekoak: gorantz , goatz (cama), gosna (colchón), gargara (parte superior camisa), goleta (cuello).
golko	= seno. Antzekoak: gongar (trákea), golo (escrófula), gorro (gargajo), gorgoil (nuez garganta), gordura (lozanía), kolats (papada), koipe , kokor (garganta), kokotz (mentón, cogote)
gara	= cráneo. Antzekoak: gar-a-un (seso), gar-azur (calavera), gar-ondo (nuca), gar-soil (calva).

Ur arloan

goai	= corriente de mar. Atondura: go-a-i . Aditza izana.
agor	= seco (manantial). Getasun zentuzkoa. Aldaketa gogorra agian
legor	= seco (materiales o superficies)
garo	= agua posada en las plantas (de lluvia, rocío).
garbi	= limpio. Atondura: gar-b-i . Aditz izana: urez garbitu
garden	= puro, transparente. Atondura: gar-din . Ura bezalakoa

Zuhaitz eta fruitu

gardaska	= roble o encina, chaparros
gari	= trigo. Atondura: gar-i . Aditz izana
gare	= granero
gario	= rama desgajada del tronco del árbol
gargaldu	= desgranar. Atondura: gar-galdu
garapa	= racimos pequeños o castañas sin recolectar
goko	= racimo
garagar	= cebada. Atondura: gar-a-gar
garau	= fruto



Hirugarren multzoko egintza erroa: GI

In eta gi nahasi eta bateratzen dituen forma **gin** genuke. Kasu berbera dugu **gar** fonema: **gar** eta **go** alkarturik.

gi (ki)	= sufijo deriv. Con significación "parte", cosa de: gantzagi, oiloki, ardiki, izioki
gi (ki)	= sufijo modal: ongi, gaizki, gizonki, ederki. Egintza zentzua
egi	= lugar, lugar de acción: bei-t-egi , usategi (u s o-t-egi). Toki hitza agian erro beretik: -egi -> -teki -> toki
-gile	= hacedor
-gin (kin)	= hacedor
-kiro	= modal (gizonkiro). -ro bakarrean oso erabilia: astiro, aguro
-kizun	= acción futura (ikuskizun)
-kide	= colega, compañero. Baliteke: etorri-etorki-etorkite-etorkide
giro	= temperatura
gisa	= modo

IGI formatikoak

Ahoski batzuk aldaketa dute eta kasu honetan **i-gi** da:

-tik (-dik)	= desde (lugar de acción)
igi, igitu	= moverse. Iturri berekoak: igaz, igasi, igerika, igeste
igidura	= movimiento. Atondura: igi-tu-era
igikor	= movable. Atondura: igi-k-or
igain	= pasear. Atondura: ig-a-in . Beste aditzen atonduraren antzera: izan, ukan, zain, gain, joan
igande	= igante: día de paso. Atondura: igan-te (etor-te , ibil-te bezalaxe)
igarri	= acertar. Atondura: ig-ar-i <i>observar el movimiento</i> . Ikasi sorbidez gauza berbera izan daiteke
ikurri	= caerse, significado. Atondura: ig-ur-i . Ikusi sorbidez gauza berbera izan daiteke
ikera	= temblor. Atondura: ik-era (mugitzeko era). Aldakia: ikara

Hirugarren multzoko getasun erroa: GE

Ge ukatze zentzua: senge, arge, alke. Baita adizetan: jateke, etorteke... Sarritan **-ga** eta **-ka** forma hartzen du: artega, egoska...

Gogo arloan

-ge (-ke)	= sufijo de negación.
bage	= sin. Atondura: ba-ge . Ezer ez eta inor ez bezala, ba-ge . Erabiliena: Lizarran, Goierriin, Erronkarin, Iparraldean, Mendebaldean. Hala ere gabe hartuz euskararen batasuna birrindu da.
barik bako	= sin. Mendebaldeko aldakiak
gen, gendu	= quitar. Atondura: ge-in . Aldakia erabiltzen da gehiago: kendu
geldi	= parar. Atondura: ge-aldi
geiz	= sombra. Atondura: ge-iz . Aldakiak: gerizpe (geiz-pe)
gezur	= mentira. Atondura: ge-zur (zur=prudente)
ke	= humo. Suaren gai ustean, kea getasun zentzua du.
gaitz	= mal. Atondura: ge-itz (ontasunik eza). Berdintsu: geixo (gaixo)
gal	= perder, pérdida. Atondura: ge-ar



